

EMAS (Eco-Management Auditory Schem)

ISO 14001 baino urrats bat haratago

Txindoki-Alkartasuna BHIk lortu berria du EMAS ziurtagiria, AENOREk kreditatua. Era berean, Ingurumen Sailburuordetzan erregistratu berriak gara: ES-EU-000035. Kreditazio honek ingurumen kudeaketari dagokionez aitopen goren suposatzen du Europa mailan.

Europar Batasunak bultzatutako ingurumen kudeaketa eta auditoritza da. Bertan parte hartzeko, ingurumen kudeaketa sistema ezarria behar da eduki (ISO 14001), ingurumen programa garatu behar da eta gizarteari honen guztiaren berri eman behar zaio, ingurumen deklarazio baten bidez. Enpresa independente batek balioztatu behar du eta, gure kasuan, Ingurumen Sailburuordetzak erregistratu eta herritarren eskura jarri behar du.

Ingurumen kudeaketa sistema izatetik haratago doa EMAS ziurtagiria, beste hainbat baldintza bete behar baitira:

1. JARDUERA
 - a. Ingurumen portaera etengabe hobetzeko konpromisoa.
 - b. Ingurumen legedia betetzen dugula demostratu.
 - c. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan ingurumen gaiak txertatu.
2. GARDENTASUNA
 - a. Herritarren eskura jarri kudeaketa sistema osoa eta, gainera, ingurumen deklarazio publikoa egin, ikastetxearen ingurumen portaera nagusiak biltzen dituen.
 - b. Eskola komunitatea osatzen dugun guztiok (ikasleak, gurasoak, irakasleak, langile ez-irakasleak,&) parte hartzen dugula arlo honetan demostratu.
3. SINESGARRITASUNA
 - a. Enpresa independente batek balioztatu eta Ingurumen Sailburuordetzan erregistratu.

